

# DEBA



## TXORO AIZEA

Amasei urte kaskarin. Neska polita. Berrogeita hamar abizen euskotar odolean, baña... euskera ez daki, Ezta jakin nai ere. Ez ote da gauz egokia euskeraz itz-egitea «minifalda» jantzi ezker? Batek ba-daki!

Boskarren urtea egin du batxillerrean, aurrera dijoa etxeko alaba kutuna, aita-amak jo-ta-kean lana, alaba politari «karrera» emateko... izan ere asko balio du, ala dio irakasleak...

—Zuk esaten dezu Maria, euskeraz umeari itz-egitea kaltegarri dala, ikastietan atzeratu egiten ditula...

—Ez da nik esaten dedana Martin, mojak neuri esana da. Umeak errexago ikasi al dezaten, ez dute nai etxean euskera erabiltzerik.

—Badekizu nere anaia ta bere amaztea zein euskeltzale purrukatuak diran. Aien etxean ez da euskera besterik egiten, eta beren alaba Edurne, gure Pilartxoek urtekoa da; arek seigarren urtea ta errebalda egin ditu, ta gurea urte bete atzerago.

—Ene gizona! Beti orretan zera! Gure Pilartxo Edurne baño neska ederrago da, mutillak ondoren ditu, Edurne'ek baño geiago, ta ikasi edo ez ikasi, gazterik ezkonduko zaigu.

Millaka ta millaka Pilartxo ditugu gaur euskalerrian. Urte gutxi barru guraso egini izango diranak... A zer etorkizuna gure euskera gaxoarentzat!

Euskerak, biziko bada, bear-bea-

rreko du sendian iraun araztea, bestela urte gutxiarik batiko joango zaigu. A zer gainbera daraman!

Ikastoletan lan ederrenetakoa egiten da. Baña ikastolen lanak sendian bear du jarralpena, eta sendian dabil narraxka.

Zer balio du gurasoak euskeldun izateak, baldin senar-emazteak elkarrekin euskera erabiltzen ez badute?... Ikastolan dabilzkite umetxuei, bai, euskera egiten zale, baña aundien artean erdera besterik ez. Eta ikastola utzitzen duten artekoa besterik ez dute an ikasi duten euskera.

Au ere milla ta millaka sendietan gertatzen ari dana da. «La niña va a la ikastola y ha aprendido muy bien el euskera». Baña ortik aurrera ezer ez.

Ekin gogor bat bear da, batez ere emakume euskelduna euskeltzale izaten. Ez dezala uste-izan umea ikastolara eramanakin bere bearkuna bete duanik. Berak bear du etxean euskera erabili. Berak beardu euskera ganako zaletasun bizia beregan piztu. Berak bear du gure andereño zintzo oten lanari lagundu. «Mis niños van a la ikastola». Ez, ez da gutxi ez; baña ez da naikoa.

Ama euskelduna benetako euskeltzale egiten gogor ekin bear da. Bestela... beste lan mota guziak alperrikakoak jasoko da ba, bai, baña idaztegiategitako apalarik goituenara. Nolizik beñi eskuetan artzen diran liburua lo-egitan duten tokira.

TENE



## ERRIKO JAIAK

Emen dira zezanak. Adar zorrotz eta bustan motxeokak.

Eleizan edo Sen Roke ermita txoan urtero etortzen dan izlariak esango ditu aurtan ere gure done edo Santo ospetsuaren mirariak.

Alkate jaunak azelduko ditu jai-egitarauan, urte ontan egin dituen lanak agur emanaz kanpotik etortzen dan jondeari eta kenpoan diran errotarreri.

Dena ederki dijoa eta Deba'n bezelako jaiak ez da egiten inñun.

—Gizon, nai al dezu ardo presko pixka bat? Tori zatua eta edan ardua gabe.

Alnbeste edertasun ontan galde-bera bat nai nuke egin. Or dijoa.

Deba'n, gure erri ontan, ikaragarriko Euskal-jaiak antolatu dituan erri ontan, Itxuraz euskal-zaletasuna berreneño sartua duan erri ontan— zenbat dira euskeraz bear dan eran irakurtzen dakitenak?

Zenbat idazten dutenak? San Roke, Montpellier'koa zala, bai gizona.

Zezanak Zamora aldetik ekarri dituela aurtan. Konporne.

Ikastola ben-benetako ederrak amaitzen dijoazela. Tantorta Iturriko urak laister izango dirala sartuak bere tokietan eta naiko ur izango degula. Oso ederki.

Bañan, arren, erantzuna nai nuke nere galdeerari.

ixlunea.

Irakurtzen dakienak — Izango ote dira eun lagun?

Idazten dutenak badakit zenbat diran. Tene, gure irakasle ospetsua. On Anes, bikario jauna. Beste pare bat apaiz. Ortik aurrera — ote dira sei lagun?

Barkatu, beste inñor barruko ez badet artzen. Ni euskal-analfabeto besterik ez naiz, eta orregatik gelditzen naiz kanpoan. Ez umildea natzelako.

Lotsagarrikeri aundiagorik ezin lezake izim. Euskera, ludiko izkuntz zaarrenetakoa dala eta Paris'ko, Musée de l'Homme azaltzen baita «la premier langue occidentale du monde». Bai gizona. Erri baten izakera, etorkizuna, izkuntzan dala. Jakiña ba.

Orrela entzuten det minzaten gure errian, bañan, geienetan, gaztela.

reez. izkuntza maite izatea baldin bada erriko aberastasun, Deba'k ez ditu errial bi, ere.

Penaz esaten ditut gauz abek, bañan, zoritxarroz, egiak dira. Ipufiekin eta txotxokeriekin ez da lortzen benetako gauzik.

Ikasteko bideak zabalik dira, zaletasuna, egitako maitasunak lortzen du, Ekin eta jarrai, Burrukan egiteko gogorik ez duan gazteak, alperrik du zortzi edo amasei abizen euskaldun ateratzea bere nortasuna jakin-arazizeko. Guraso euskaldunak, erri euskaldun baten bizi, eta erdaldun pensatzen duanakin ezingo da gauz aundirik espero. Naiz ezpata-dantzari izan eta anka jasotzen jakin burutik gora.

Bañan — zer ari naiz ezaten? Erriko jaiak dira. Zezenak ere baditugu, adar zorrotz eta bustan mo— Nai al dezu ardo pixka bat? tsekoak.

LETETAR INAKI

## ANDREA

Drogategi berria Iriki da Astillero kalean. Bertan artikuko asko dituzute, nai bezelako eskeingari edo erregaluak, usai gozoriak pñienak, eta orretariko aukera guziak.

DEBA



## JANZKI EGIÑAK

S. Roke Kaleko 12'an. DEBA'N

Ondo jantzi nai al zera? Zoaz «Ainhoa» dendara. Janzki apañak. Ondo egiñak.

SAN ROKE JAIETAN ZORION OSOA OPA DIZUTE

### FE MARI PELUKERI ONA

Ille-apainketa egokia; etxe ontatik pozik aterako zera. Erriko jaietarako ondo orraztu zaitte.

Lersundi, kalea, 15 DEBA (Gipuzkoa)

### GALARRAGA

Elektro-etxerado tresnetan aukera aundia. Ez erosi etxe au ikusi gabe. Igeltsero-lanak. Gure zorionak Sandroketan.

Lertsundi, 4 Urrutizkiñak: 601251-601078 DEBA (Gipuzkoa)

### Hotel MONREAL KAFETERI

JOSE EGARA ERAÑA

RESTAURANTE ETA KALLETXEA. — ERRIKO JAIETAN GURE AGURRA. Urrutizkiñak: 601244-601245 DEBA (Gipuzkoa)

### ongarri pentsuak AURRERA alkartasunean

«SANDROKE» JAIETAN GURE ZORION AGURRA

ITURKALE 20'an DEBA

### AITOR

Kafetxea. Gozooipil eta Mokau gozoak.

### TE-ARETOA

Lertsundi, 14 ta 16 Urrutizkiña 60 11 52 Sandroke jaietan zuen zal. DEBA (Gipuzkoa)